

Arantzazuko Kofradia berria

Joseba Intxausti

Historian zehar, Arantzazun eta bertako Santutegiaren inguruan (hurbil eta urrun) Kofradia ezberdinak sortu izan dira, aurreko mendeetan eta XX.ean. Ez dute denek izaera berdina izan, ez beren helburu guztietan, ez barne-antolaeran, ez eta lortutako hedapenean.

Hiru Kofradia ezberdin izenda daitezke: Oñatiarrek bertan Santutegiaz arduratzeko zutena, eta Udalaren menpe jardun zuena; bigarren, mundu zabalean euskaldunek, han eta hemen, eratutako Kofradiak, bereziki Amerika eta Filipinetakoak; hirugarren, frantziskotarrek XX. mendean sortutakoa, batez ere deboziozko elkarteak izan dena.

Ameriketakoaz eman dizkigu argibideak aurreko orrialdeetan Anaia M. Errasti adiskideak, eta aipatu ditu gaiak jardun duten ikertzaile nagusienak ere. Lehenengo beste hartaz, bestalde, albisteak bildurik ditu lehendik zenbait idazlek (adibidez, Lizarralde kapitulu osoa eskaini zion bere Historian, A. Izagirrek berdin 1918ko *Arantzazu. Homenaje filial*-ean, eta J. C. Guerra-k ere bai ikerlan bat urte berean).

Hala ere, Santutegitik frantziskotarrek sustatutako hirugarren Kofradiaz, dakigunez, idazteko dago beharrezko historia. Ezer gutxi esango den arren, 1917an jaiotako honetaz zertxobait bederen azaldu beharra dago, beraz; baina, dena den, lehenik gogora dezagun tradizio zaharra ere.

1. LEHEN KOFRADIA (1489...)

Hain zuzen, Santutegiaz ditugun albisteetako zaharrenetariko bat (1489, 1491) oñatiar eta arrasatearrek eraturik zeukaten Arantzazuko Kofradiarena dugu, gerora oñatiarrek bakarrik osatu zutena. Lehen Kofradia hari buruz zera idatzi zuen Aita Lizarralde (Lizarralde 1950: 114):

No fue en sus principios ninguna institución canónica con estatutos aprobados por la autoridad eclesiástica, ni siquiera una entidad con representación social determinada; sino un gremio de voluntarios.

Lagunarte honen hasierako egiteko nagusia Santutegirako bidea irekitzea izan zen, eta gerora, Udalaren babespe edo agindupean, urteroko Erromesaldia egin eta Santutegiko bizitza samurtzea. XVI. mendean apenas dugun beroni buruzko albisterik, baina bai XVII.lean, batez ere Komentuaren eta Kofradia/Udalaren tartean sortutako tirabira zenbait gertatu zenean (Lizarralde 1950: 118-122).

Kalahorrako Diozesiak Kofradiei ezarri nahi izan zizkien arautegiak gorabehera, Oñatiko honek oso herritar eta beregaina izaten segi zuen XVIII.lean ere; preseski mende horretakoa da ezagutzen dugun Elkartea-Arautegia (1744).

Komentua eta beste eraikinak bezala, 1834ko suteak eraman zuen garai bateko Kofradia hau. Egiaz, orduan desagertu zen Kofradia.

Elkartea honen nortasuna Oñatiko Udalari loturik zegoen, eta elizgizonena ez, baizik bertako herritar libre aitor-semeena zen, ahal zelarik kondepekoak kanpora edo albora utziz ere bai. Elkartea zibila zen, ba, elizgizonekiko menpekotasunik gabea, nahiz eta garaiko arau eta usadioei jarraituz, eliz egitekorik ere bazuen. Hortaz, XV-XIX. mendeetako Elkartea da berau, eta guztiz tokikoa.

Alde askotatik, Arantzazu izena eraman izan zuten euskal Erbesteko beste Kofradiekin ez zuen izan zerikusiz zuzenik Oñatiko honek, ez bere kokapen zehatzagatik, ez bere azken xedeetan ere. Ikusiko dugunez, Santutegiko bertako Kofradia berriaren aurrekaria izan arren, berria beste molde batekoa sortu eta izan da.

► KOFRADIAKO ARAUTEGIA (1917)

Arantzazuko Kofradia berria –aurrekoa gogoan dugula, diogu berri-oso bestelakoa izan zen: elizgizonek sortua eta berauek gidatua; kasu honetan, Santutegitik bertatik. Arautegiaren arabera, posible zen garapen-molde ezberdinak izatea (debozioskoa ala pastoralagoa, adibidez). Eskuarki, jaierazko jardunbidea nagusitu zen Kofradia honetan (aipatuko den salbuespenik izan zen arren).

REGLAMENTO DE LA COFRADÍA (1917)


El Reglamento de la nueva Cofradía la definió, sobre todo, como una asociación piadosa, centrada en determinadas prácticas devocionales (oración, peregrinación, etc.), aunque sugería también vías de actuación más pastoral que, después, en la práctica se desarrollaron en muy contadas ocasiones.

2. KOFRADIA BERRIAREN BIZITZA (1917...)

Santutegi izanberrituaren arrastoan (1878...) etorri zen *Arantzazuko Amaren Kofradia* deituaren sortzea (1917), eta data honek ongi erakusten duenez, Santutegia jaso eta sustatzeko plangintza zabalago baten barnean bultzaturiko ekimena zen. Noski, ez zitzaizkion falta izan aurretik beste Kofradia historikoeak (Oñatikoak eta Ameriketakoek) egindakoaren oroimena, baina ez zuen nahi izan haien aldakina edo kopia.

Kofradia berriak batez ere jaierazko eliz elkartea izan nahi zuen, Arantzazuko Ama Birjinarekiko debozioa eta Santutegiarekiko atxikimena sustatu eta segurtatuko zituen. Batez ere, diogu, zeren jaierazkoa izan arren ez baitzituen utzi nahi izan erabat albora hezkuntza eta karitatezko ekimenak.

XX. mendean, Santutegirako peregrinazioen sustatzaileria izan zen Kofradia hau, erran nahi baita, betidanik horretarako urteroko usadioa zuten hurbileko herriez haragoko



herrietatik urteroko erromesaldiak antolatzen lagundu zuen, eta tokian tokiko Arantzazu-zaleak biltzen. Hau, egia esan, zerbait berria zen Santutegiaren tradizioan (ez derrigorrez nahikoa), eta Kofradiaren hedapenak ongi erantzun zion Koroazioak (1886) eta Zaindaritzak (1918) piztutako Santutegiako herritarren joerari.

Kofradia berri honen historia 1917-1970. etako urteetan jarri behar da; berrogeita hamarren bat urteko ibilera, beraz, Santutegiaren XX. mendeko loraldian zuzeneko eskua izan zuena. Baina, euskal fededunen Arantzazurako bideratzaile ez ezik, batzutan pastoraltzan ere zerbitzu onak eskaini zituen. Besteak beste, adibidez, Donostiako *Arantzazuko Amaren Kofradiak* bertako Katekesia bideratu zuen, eta borondatez atea ireki zioten 1.588 familiatara eraman zuen hilero Andra Mariaren irudia (c. 1960). Hau izan zen, dakigunez, frantziskotarrek inongo Hiritan eratutako Kofradi talde indartsuena.

Elkarte hau giputza izan zen batik bat, alde handiarekin Gipuzkoan izan baitzituen kofraditar gehienak; hala ere, beste euskal herrialdeetarako franko izan zuen lagunartean. Bazkide guztien izendegia Santutegiko Erregistroan eraman zen, eta hortik dakigu 1918-1954. urteetan 21.296 izenemandako egon zela, eta 5.229 gehiago 1955-1961. etan, ondoko urteetan 34.872 izateraino iristeko.

Ez dago zalantzarik: Arantzazuko Amaren jaiera indartzea izan zen elkartearen lorpen nagusia, eta Santutegiak XX. mendean irabazi zuen itzal berria Kofradiari ere zor zaio. Indarrean zegoen bitartean, sare sozio-pastoral estimagarria bilakatu zen Euskal Herrian, ia beti deboziziozko lagunarte huts bezala moldatu arren.

Gizartean eliz bizitzak izan dituen aldakuntzen ondorioz (1970...), Kofradia behera etorri da, eta ez du oraindik elkartasun berrietarako berariazko biderik aurkitu. Baina bide berriak asmatzeko ere badu Santutegiak bere Kofradien historian iradokizun interesgarriak etorkizunerako. Hala uste liteke.

DONOSTIAKO KAPUTXINOAK

Donostian izan zuen Kofradiak tokiko lagunarterik handiena, eta frantziskotarrek 1923a arte komenturik ireki ez zutenez, Donostiako Arantzazu-zaleak Aita Kaputxinoen Okendo kaleko komentuan izan zuten egoitza. Bestalde, Kofradia berria 1917an sortu aurretik ere, Kaputxinoak ziren donostiarren Arantzazuko Erromesaldiak gidatu zituztenak.

PP. CAPUCHINOS DE SAN SEBASTIÁN

Los Padres Capuchinos de la calle Okendo, en Donostia, acogieron a los donostiaras amantes del Santuario y cuando se creó la nueva Cofradía facilitaron la sede para la misma en la Ciudad. La Crónica del Santuario recuerda lo que sigue, a propósito de la peregrinación donostiarra, en abril de 1920: "A esta peregrinación precedió un triduo en la Residencia de los PP. Capuchinos de San Sebastián, donde hay un altar dedicado a la Patrona de Guipúzcoa". Sólo en 1927 se trasladó a Atotxa esta Hermandad de la Cofradía de Arantzazu.



SAN SEBASTIÁN: COFRADÍA DE NTRA. SRA. DE ARANTZAZU

San Sebastián llegó a ser una de las poblaciones con mayor número de cofrades de Ntra. Sra. de Arantzazu: 1.050, en 1950. Esta Hermandad local de la Cofradía general se había constituido ya antes de que los franciscanos abrieran en 1923 el nuevo Convento de Atotxa, y tuvo por sede hasta 1927 la iglesia de los PP. Capuchinos de la calle Okendo.

La asociación dio cohesión en la capital guipuzcoana a los devotos de la Andra Mari del Aloña, y encauzó el culto de esta advocación, así como las peregrinaciones anuales al Santuario que se fueron organizando desde 1910, presididas inicialmente por los Padres Capuchinos y organizadas por la Sra. Juana Etxabe de Marín, la misma que presidió la Hermandad local, desde su constitución hasta 1940. La señora Etxabe era natural de Araatz (Oñati), y residente en la capital.

A esta Hermandad se debe el afianzamiento de la peregrinación anual, siendo antecedente y ejemplo de otras peregrinaciones desde poblaciones no próximas al Santuario y que anteriormente carecían de la tradición peregrinacional anual en grupo. Esta será precisamente -local y anual, en fecha fija- una de las características de las nuevas formas de peregrinación, propias del siglo XX.

La nueva Cofradía que, como se ha visto en el texto adjunto, no era exclusivamente devocional, tuvo iniciativas pastorales significativas, y un caso de ellas fue la de la Catequesis del Convento franciscano de Atotxa. Nacida ésta en 1932, vino a ser una institución modélica en la Ciudad, y tras constituirse la iglesia conventual en Parroquia (1965), aquella Catequesis sigue cumpliendo aun hoy con su cometido educativo.

La Cofradía de Atotxa fue también la asociación que naturalizó en Donostia el Patronato guipuzcoano de Ntra. Sra. de Arantzazu, con las celebraciones de culto (en particular, la Novena), la peregrinación mencionada, y por medio de la así llamada Visita Domiciliaria mensual a las familias, de las capillas-urnas de la Virgen.

Hacia 1960, eran 1.588 las familias donostiarras que recibían la Visita mensualmente, y contribuían con sus limosnas al mantenimiento de la Catequesis de Atotxa. A pesar de que en la Ciudad esta iniciativa de la Visita era periférica (es decir, dirigida desde el Barrio de Egia), dos tercios de los socios de la Cofradía eran de otras zonas de la Ciudad.

Por tanto, apenas llegaba a un tercio el número de familias del propio Barrio de Egia-Atotxa (524), mientras que los demás hogares visitados correspondían a todos los otros Barrios o zonas: un segundo tercio era de Buen Pastor/Amara Viejo (459), y había una presencia importante en Gros (102) y Antiguo (125), Centro (Boulevard-Avenida: 99), sin olvidar el resto del casco urbano y Barrios como Altza, Loiola e Igeldo.

La Cofradía, muy extendida en la Provincia, vino a ser en la capital donostiarra un instrumento socio-pastoral de penetración sobre todo en su casco urbano. (*J. I.*)